

HIRUHILEKO KONTU EKONOMIKOAK (HKE) 2005eko 1. HIRUHILEKOA


Euskal AEko BPGak %2,9ko hazkundera izan zuen 2005eko lehenengo hiruhilekoan

Lehenengo sektorea, Eraikuntza eta eskariaren ikuspegitik Inbertsioa izan ziren joera onena izan zuten osagaiak urte honen lehenengo hiruhilekoan

EUSTATEk landutako datuen arabera, Euskal AEko ekonomia %2,9 hazi zen 2005eko lehenengo hiruhilekoan 2004ko hiruhileko berdinen aldean. Hiruhilekoaren bilakaera aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, hiruhileko arteko %0,5eko hazkunde-tasa lortu zen.

Euskal AEko urte arteko bilakaera Espainiako ekonomiak izandakoaren antzekoa izan zen, baina Europar Batasuna-25erako (%1,7) eta Europar Batasunera-15erako (%1,6) estimatutako tasa gainditu egin zuen, eta Eurogunekoa (%1,4) bikoiztu.

BPG merkatuko preziotan. Urte arteko aldakuntza-tasak. Oinarria 2000



Iturria: Hiruhileroko Kontu Ekonomikoak, Eustat.

Estatuko datuak, INE (2005eko 1. hiruhilekoa salbu, Banco de España). EB 25 eta AEBetako datuak, Eurostat.

Eskaintzaren aldetik, urte arteko tasan batez bestekoaren gainetik hazi ziren sektoreak nekazaritza eta arrantza (%14,3) eta eraikuntza (%4,3) izan ziren. Bi sektore horiek profil azeleratua erakutsi zuten, bai urte arteko baliotan, bai hiruhileko artekoetan.

BPGa merkatu-preziotan. Eskaintza. Urte arteko hazkunde tasak. Oinarria 2000. Prezio finkoak. Euskal AE

	2003	2004	2004				2005
			I	II	III	IV	I
Nekazaritza eta arrantza	-15,6	15,1	23,5	4,2	20,2	13,7	14,3
Industria	1,4	2,4	2,1	2,4	2,5	2,5	1,4
Eraikuntza	3,7	3,5	3,8	3,6	3,4	3,3	4,3
Zerbitzuak	3,0	2,8	2,8	3,0	2,8	2,6	2,9
Produktuen gaineko zerga garbiak	4,5	4,8	4,8	4,7	4,8	4,7	4,7
BPG merkatuko preziotan	2,5	3,0	3,0	3,0	3,1	2,9	2,9

Egutegiko eta urtaroen eraginez zuzendutako datuak. Unitatea: %

Iturria: Hiruhileroko Kontu Ekonomikoak, Eustat

Euskal AEko ekonomiaren egituraren hedapen handia duen industria-sektoreak urte arteko tasa apalagoa izan zuen, %1,4koa. Bestalde, %0,3ko hiruhileko arteko tasa negatiboa izan zen, aurreko urteko azken hiruhilekoarekiko dezelerazioa nabarmenduz.

Zerbitzuek osotara hartuta, ibilbide positiboari eutsi zioten urte arteko bilakaeran, ekonomiaren batez bestekoaren erregistro bera markatuz. Zerbitzuetan, *merkatukoak* izan ziren eredia markatu zutenak, %3,0ko urte arteko hazkundearekin; *ez-merkatukoak* %2,0ko hazkundera lortu zuten.

Eskariaren aldetik, barne-eskaria %2,8 hazi zen, BPGarena baino hamarren bat gutxiago, eta ondorioz, kanpo-saldoak ekarpen txikia egin zion BPGaren hazkunderari, inportazioak zein esportazioak %0,6 besterik ez baitziren gehitu.

BPGa merkatu-preziotan. Eskaria. Urte arteko hazkunde tasak. Oinarria 2000. Prezio finkoak. Euskal AE

	2003	2004	2004				2005
			I	II	III	IV	I
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	2,5	2,4	2,6	2,5	2,4	2,2	2,2
Herri-administrazioen azken kontsumoko g	3,5	3,1	3,2	3,3	3,0	3,1	3,3
Kapital-eraketa gordina	3,1	3,2	2,6	3,3	3,4	3,6	4,0
Barne-eskaria	2,8	2,7	2,7	2,8	2,8	2,7	2,8
Gutzizko esportazioak	0,9	9,0	10,9	6,7	9,9	8,3	0,6
Gutzizko inportazioak	1,4	8,3	10,0	6,3	9,1	7,8	0,6
BPG merkatuko preziotan	2,5	3,0	3,0	3,0	3,1	2,9	2,9

Egutegiko eta urtaroen eraginez zuzendutako datuak. Unitatea: %

Iturria: Hiruhileroko Kontu Ekonomikoak, Eustat

Etxeek kontsumoan izandako gastuak urte arteko %2,2ko bilakaera neurritsua izan zuen, aurreko hiruhilekoaren aldean azelerazioa erakutsi arren: 2004ko laugarren hiruhilekoan izandako %0,3ko hiruhileko arteko tasatik aurtengo lehenengo hiruhilekoan izandako %0,8ra pasa zen.

Kontsumo publikoan izandako gastuak etxeetakoak baino urte arteko ibilbide nabarmenagoa izan zuen: %3,3ko urte arteko tasara igo zen, eta azken kontsumoko gastu osoa %2,4ra.

Eskariaren osagairik dinamikoena Kapital Eraketa Gordina (inbertsioa) izan zen zalantzarik gabe eta urte arteko %4,0ko bilakaera izan zuen. Ekipo-ondasunen erosketetan eta eraikuntzako azpisektorean gauzatutako inbertsioek eskari efektiboaren joera goratu zuten.

Enplegua %1,8ko tasara igo zen, 2004ko lehenengo hiruhilekoaren aldean, eta 16.000 enplegu garbitik gora sortu ziren urtean. Urte arteko enplegua sortu zuten sektoreak *eraikuntza* (%2,6) eta *zerbitzuak* (%2,7) izan ziren; *nekazaritza eta arrantzak* (%-1,2) eta *industriak* (%-0,3), aldiz, enplegu-kotak galdu zituzten.

2005eko lehenengo hiruhileko horretan, lurralde historikoka, BPGa %3,0 igo zen Bizkaian, %2,8 Gipuzkoan eta %2,7 Araban, guztiak urte arteko tasetan.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxe: +34-945 01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maria Angeles del Castillo

Tlf:+34-945-01 75 97 Fax:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp